



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko martxoaren 16a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, eskola-jantokietako elikagaiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, zenbait GK Erentzako diru-laguntzari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak eta Caixak hartutako konpromisoari dagokiona. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, ondasun eta espazio publikoen erabilera egokia bermatze aldera Nafarroako Gobernuak onetsitako jarraibideak Administrazioari langileek ez betetzeari eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “osasunerako zentimo” deitutakoa itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroaren Landa Garapenerako Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroan dauden GR eta GRT Mendibideen Sareko 800 kilometroak behin betiko deshomologatu eta deskatalogatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, hartutako kalte zerebralari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarduketa zehatz egin behar diren, Gobernuaren ustez, zentro itundu bakoitzean ONOZen itun-estrategia berriarekiko koherentziaz. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Europar Batasuneko Erregioen Batzordean dituen helburu eta ekimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakitekoa ea turismo-plan berariazkorik egin ote den, Tuterako katedraleko klaustroa zaharberritzeko lanen emaitza bertatik bertara ezagutu ahal izateko. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateatik aplikatu diren bajei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako zergadunei PFEZaren 70,3 milioi euro itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Galdera, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, eskola-jantokietako elikagaiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-jantokietako elikagaiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du hau jakiteko: “2014-15 ikasturte honetan eskola-jantokietan zerbitzatzen den bazkariari dagokionez, irizpide berezirik ezarri zaie ikastetxeei edo zerbitzua ematen duten enpresei, elikagaiak prestatzeko moduan, kantidadean ala elikagai jakin batzuk sartzeaz, esate baterako? Hala bada, zeintzuk dira, zehazki?” (8-14-PES-00222). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak lizitatu dituen eskola-jantokiko zerbitzuen kontratazio agirietan irizpide hauek ezarri dira:

- Esleipena hartzen duen enpresak, bere zerbitzuan, osasun agintariak finkatu duten eguneko gutxieneko osagai nutritiboaren kopurua eman behar du.

- Eskola-menuaren lehentasunezko helburua izan da dieta orekatuaren kontsumoa sustatzea, askotariko elikagaiak, pretaerak eta testurak direla medio. Elikagai jakin batzuk dietan sartzea sustatuko da, hala nola lekaleak, arraina, fruta edo barazkiak, zaila izaten baita haurren elikaduran horrelakoak sartzea.

- Elikagaiak prestatzeko prozedurek produktuen elikadura-balioari eutsi behar du.

- Esleipena hartzen duen enpresak zerbitzu mediko batek agin ditzakeen dietak zerbitzatu behar ditu, izaera orokorreko tokiek finkatuta duten prezioa aldatu gabe. Alergiadunentzako dieta mota hauek ere zerbitzatu dira:

- Frutarik gabekoa.

- Frutarik gabekoa, zitrikoak izan ezik.

- Arrautzarik gabekoa.

- Esnekirik gabekoa.

- Arrautzarik eta esnekirik gabekoa.

- Lekadunik gabekoa (lekadun guztiak kenduko dira, tartean soja, ilarra, baba, leka, kakahuetea eta kakaoa).

- Lekadunik gabekoa, soja, ilarra, baba, leka eta kakahuetea izan ezik.

- Fruitu lehorrik gabekoa (ezin dute fruitu lehorrik jan, ezta kakahueterik ere).

- Arrainik eta itsaskirik gabekoa.

- Arrautzarik, esnekirik, arrainik, itsaskirik, fruitu lehorrik, lekadunik eta frutarik gabekoa.

Bestalde, Prestakuntza eta Kalitate Atalak emandako informazioaren arabera, Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuarekin lankidetzan, urtero ekintza hauek burutzen ditu ikastetxeetan:

- Ikastetxeei “Osasuntsu itzuli ikastetxera” liburuxka banatzea. Elikadura osasungarriari buruzko irizpideak dakartza ikastetxearentzat nahiz familientzat.

- Elikadurari, osasunari eta ariketa fisikoari buruzko prestakuntza ikastaroak irakasleentzat.

- Fruta eta barazkiak banatzeko eta horien kontsumoa sustatzeko kanpaina.

- Ikastetxeei aholku ematea elikadura egokia sustatzeko ekintzei buruz (gosari osasungarriak, bazkari osasungarriak eta abar).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, zenbait GKErentzako diru-laguntzari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak eta Caixak hartutako konpromisoari dagokiona.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egingdako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zenbait GKErentzako diru-laguntzari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak eta Caixak hartutako konpromisoari dagokiona. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak eta Caixak hartutako konpromisoari dagokion diru-laguntzari buruz (8-14 PES-00235). Hau da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

- 1. Sare-k eta Hiesaren Aurkako Batzordeak urtea bukatu aurretik jasoko al dute diru-laguntza? Akordioa 2015erako berrituko al da?

- Caixa d'Estalvis i Pensions "la Caixa" banku fundaziotik jakinarazi digutenez, bai Sare-k bai Hiesaren Aurkako Batzordeak urtea bukatu aurretik jasoko dute Osasun Departamentuak eskatutako finantzaketari dagokion diru-sarrera.

Osasun Departamentuak 2015ean beste hitzarmen bat sinatu nahi du Caixa d'Estalvis i Pensions de Barcelona banku fundazioarekin eta Nafarroako Kutxa Fundazioarekin, osasun arloko proiektu garrantzitsu batzuek finantzaketa jaso dezaten erakunde horien gizarte ekintzaren barruan.

2. Irabazi asmorik gabeko zenbat elkarte edo entitate daude lotuta Nafarroako Gobernuaren eta La Caixaren arteko akordio horri? Honako hau jakin nahi dugu: horien guztien izena, horietako bakoitzak jaso behar zuen zenbatekoa eta gaur egungo egoera.

Osasun Departamentuak 2014ko irailaren 26an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen Caixa d'Estalvis i Pensions de Barcelona banku fundazioarekin, Nafarroako Kutxa banku fundazioarekin eta Caixabank-ekin, entitate horiek, beren gizarte ekintzaren kargura, osasun arloko proiektu hauek finantza zitzaizten:

- "Nafarroan odol emaileak erakarri eta fidel-tzea, Nafarroako osasun sarea hornidurarik gabe egon ez dadin: Nafarroako Odol Emaileen Elkar-tea." Nafarroako Odol Emaileen Elkartearentzat 60.000 euro eskatu ziren.

- "Minbizia dutenei eta haien familiei laguntzea: Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkar-tea." Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearentzat 13.500 euro eskatu ziren.

- "GIB/hies gaitzaren prebentziorako, detekziorako eta kontrolerako laguntza elkar-tea." 150.000 euro eskatu ziren, honela banatuta, Departamentuaren laguntzen deialdian ezarritako banaketa irizpideari jarraituz: Hiesaren Aurkako Batzordearentzat, 39.482 euro; Hegoak-entzat, 13.764 euro; Aldezar-entzat, 1.550 euro; Sare-entzat, 35.920 euro; Hogar Zoe-entzat, 55.794 euro; Erronkari Iboxako Batzarrarentzat, 178 euro; Abiatze-entzat, 2.455 euro, eta Munduko Medikuentzat, 857 euro.

- "Gutxiengo etnikoen programa." 23.000 euro eskatu ziren, honela banatuta, Departamentuaren laguntzen deialdian ezarritako banaketa irizpideari

jarraituz: Gaz Kalo-rentzat, euro, eta La Majari-rentzat, euro.

– “Koloneko minbiziari aurrea hartzeko kanpaina”: 50.000 euro eskatu ziren. Diru kopuru horren zati bat publizitate kanpaina bat ordaintzeko erabili da. Kanpaina horretan Osasuna Fundazioari 10.000 euro ordaindu zaizkio eta GAPs-i 15.000 euro.

– “Garun paralisia eta antzeko gaixotasun neurologikoak dituzten adingabeei Petö metodoaren bidezko tratamendua ematea.” 130.000 euro eskatu ziren.

– “Osasun arloko ikerkuntza sustatzea.” 10.000 euro eskatu ziren Miguel Servet Fundazioari laguntzeko.

Hau da egungo egoera: Caixa d'Éstalvis i Pensions de Barcelona banku fundazioak jakinarazi digunez, urtea bukatu aurretik honako entitate hauei ordainduko zaie: Nafarroako Odol Emaileen Elkarte, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkar-

tea, Hiesaren Aurkako Batzordea, Hogar Zoe, Abiatze, Sare, Gaz Kalo, La Majari, Osasuna Fundazioa, GAPs eta Miguel Servet Fundazioa.

Honako entitate hauei 2015aren hasieran ordainduko zaie, behar diren agirietako batzuk falta direlako: Hegoak, Erronkari Ibaixako Batzarra eta Aldezar.

Halaber 2015aren hasieran ordainduko dira Petö metodorako laguntzak, oraindik ez delako aurkeztu ordaintzeko eskaera, ekitaldia urte naturalarekin batera ixten baita, eta koloneko minbiziari aurrea hartzeko kanpainarako gainerako 25.000 euroak, oraindik ez direlako itxi jarduketa horien azken fakturak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, ondasun eta espazio publikoen erabilera egokia bermatze aldera Nafarroako Gobernuak onetsitako jarraibideak Administrazio langileek ez betetzeari eta hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ondasun eta espazio publikoen erabilera egokia bermatze aldera Nafarroako Gobernuak onetsitako jarraibideak Administrazio langileek ez betetzeari eta hartutako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko parlamentu-galdera egin du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ondasun eta espazio publikoen erabilera ego-

kia bermatze aldera Nafarroako Gobernuak 2012ko urriaren 31ko Gobernu Kontseiluan onetsitako jarraibideak Administrazio langileek ez betetzeari eta hartutako neurriei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Erabakiaren 3. puntuak dioenez, “administrazio unitate guztien arduradunek begiratu dute erabaki honetan jasotzen diren jarraibideak bete daitezen”.

Hala bada, egin ahal izan diren jarduketan gaineko ezagutza ez dago inola ere zentralizatuta, unitate bakoitzeko arduradunari dagokiolako haiek eskatzea.

Dena den, jakinarazten dizut ez dela gaiari buruzko jarduketa nabarmenik izan, ez delako larritasun bereziko edo herritarrentzako zerbitzu eraginkorraren kalterako egitaterik antzeman, non-bait.

Pentsatzekoa da, beraz, portaera arinei dago-kienez, adierazpen askatasunerako eskubidearen

eta askatasun sindikalaren hedadura lehenetsi dela, baliabide eta espazio publikoen erabilera gehiago murrizten duten beste irizpide batzuen gainetik, deusetan ukatu gabe indarrean daudela Enplegatu publikoek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ondasun eta espazio publikoak ongi erabiltzeko jarraibideak, Nafarroako Gobernuaren 2012ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onetsiak, bai eta langile horien diziiplina araubideari buruzko antolamendua ere.

Beraz, eskatutakoari dagokionez ez da inolako informazio- edo diziiplina-espedienterik ezagutzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, “osasunerako zentimo” deitutakoa itzultzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “osasunerako zentimo” deitutakoa itzultzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, “osasunerako zentimoa” deitutakoa –berez, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga– itzultzeari buruz (8-14/PES-0236). Galdera hori 2014ko azaroaren 20ko 3223 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenengo galdera da ea zer eragin izanen duten Espainiako Estatuko Gobernuaren erabaki horiek Nafarroako Gobernuaren itzulketa-aurreikuspenetan. Bada, erabaki horiek ez dute inolako eraginik izanen itzulketa-aurreikuspenetan. Itzuli beharreko zenbatekoa ez da aldatu haien ondorioz. Beraz, orain dugun informazioaren arabera, guztira 20 milioi euro itzultzea aurreikusten da.

Bigarren galdera dela eta, honako hau adierazi behar da:

1.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C82/12 gaia zela-eta 2014ko otsailaren 27an emandako epaiaren betearazpen-prozesuaren ezaugarri berezi eta zehatzak direla eta, oso zail gertatzen da, denbora iraganda ere, hark ukituta daudela jotzen duten zergadunek eskatutako kopuruaren kalkulu zehatza egitea.

Horri dagokionez, honako hauek aipa daitezke ebaluazio hori egiteko oztopo nagusi gisa:

a) Itzulketarako eskubidea duten pertsonen kopurua, zeinak hartzen baititu preskribatu ez diren urteetan zerga hori jasan zutela demostratzeko modua duten zergadun guztiak, bidegabeko diru-sarrera itzultze aldera. Dagoeneko 16.000 eskaera baino gehiago egin dira.

b) Itzulketarako eskubide hori justifikatzeko eskatzen diren zehaztasunak, zeren eta hornikuntza bakoitzeko faktura bakoitza zehaztu beharra baitago, eta horrek izugarri handitzen du egindako itzulketa-eskari bakoitzaren erregistro kopurua. Guztira, sistema informatikoan, 700.000 kontsumo-datu baino gehiago kargatu dira.

c) Sistema informatikoan jada kargatuta dauden datu horiei gehitu beharko litzazkieke paperean aurkeztutako espedienteak, zeinak asko baitira. Izan ere, eskaria paperean aurkezteko aukera ezin zaie ukatu prozesu honen onuradunei, baina Zerga Berezien eta Bestelako Zergen Atalaren kudeaketa-lana izugarri handitzen du, atal hori baita eskariak izapidetzeko arduraduna. Une honetan, gisa horretako 6.000 espediente baino gehiago daude (paperean aurkeztuak), prozesatu beharrekoak, eta batzuetan gertatuko da datu horiek eta jada grabatuta daudenak bikoiztuta

egonen direla, aurreko lerrokadetan esandakoari jarraituz.

2.- Aurreko guztia dela eta, itzuli beharreko kopuruari buruz kalkulatu diren datu eta aurreikuspenak hurbilketa batzuk baizik ezin dira izan.

Lehenengo hurbilketetako bat 2010etik 2012ra bitarteko diru-bilketa orokorraren kopurua kalkulatzekoan egin zen (horiek dira ukitutako aldi nagusiak), eta balizko erreklamazioen % 50eko tasa aplikatu zitzairen. Portzentaje hori izan zen lehenengo unean ZAEAk bere esparruan aintzat hartu zuena. Eragiketa horrek 38 milioi euroko kostua du emaitza.

2.- Hala eta guztiz ere, gero kalkulu zehatzagoak erabili dira, sartzen joan diren espedienteak ikusita; horren arabera, kopurua nabarmen txikiagoa izanen da, 20 milioi euro ingurukoa. Nolanahi ere, fidagarritasun gutxiko aurreikuspenak dira, tasa handiago bat lortzen ez den arte, eskariak sistema informatikoan grabatzeari dagokionez ez ezik, haien berrikuspenari dagokionez ere, zeren eta akatsak, bikoiztasunak, justifikatzeko hutsak eta abar gerta baitaitezke.

3.- Itzuli beharreko kopuruen bolumenaren jaitseran eraginen lukeen beste inguruabar bat (oraindik ere modu fidagarrian kalkulatzetik ez dagoena) 2003/96/EE zuzentarauak ezarritako gutxieneko zergapetzearen aplikazioari dagokiona da, zeinak eraginen bailuke 2012ko gasolio-konsumoarengatik itzultzeko eskatu diren kuoten zati handi bat ezin artatzea, Europako arau hori urratzeagatik. Izan ere, zuzentarau horri jarraituz, soilik itzuli beharko lirarteke aipatutako 2003/96/EE Zuzentzarauko 4.1 artikulua exijitzen duen gutxieneko zergapetze-maila gainditzen dutenak. ZAEA eta Nafarroako Zerga Ogasuna oraindik ere aztertzen ari dira zein den gai horren aplikazio praktikoa.

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago Europar Batzordeak, 2014ko abuztuaren 29an, erantzun egin diola Europar Batasunean Espainiak duen ordezkari iraunkorrari, esanez "zenbait hidro-

karburoren txikizkako salmenten gainera zergaren bidez bildutako kopuruak itzultzeko betebeharrak ez lituzkeela hartuko sartutako kopuru guztiak, baizik eta soilik Europar Batasunaren araudiak preskribatutako zerga berezien gutxieneko maila gainditzen dutenak".

4.- ZAEAk erabaki du itzuli beharreko kopuruak kalkulatzeko irizpidea aldatzea, 2003/96/CE Zuzentaraua ez aplikatzea eta, ondorioz, kontzeptu horrengatik itzuli beharreko kopuruak ez murriztea.

5.- Ezin zen bestela izan, zeren eta Nafarroan ZHTSZ ordainarazteko aplikatu behar den araudia Estatukoa bera baita. Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak irizpide berbera erabili behar du zerga horren itzulketari dagokionez.

4.- Bidegabeko diru-sarrera horiek ordaintzeko egutegia honakoa izanen da, gutxi gorabehera:

a) 2014ko azaroan eta abenduan zehar data horietara arte konprobatutako itzulketak espedienteetatik heldu diren kopurua itzuliko dira. Une honetan, ezin da kopuru horien zenbatekoari buruzko aurreikuspen fidagarririk egin.

b) 2015ean zehar gainerako kopuruak itzuliko dira, espedienteak direla-eta egiten diren diren egiaztapenen arabera.

c) Eskuz egindako eskaerei dagokionez, organo eskudunek eskaera horiek sistema informatikoetan grabatu eta egiaztatu ahala egingen dira itzulketak.

Hirugarren galderari dagokionez, azkenik, esan beharra dago azaroaren 27an 926.752 euro itzuli zaizkiela 217 zergaduni.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua bete zeko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 19an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 2007-2013 urteetarako Nafarroaren Landa Garapenerako Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2007-2013 urteetarako Nafarroaren Landa Garapenerako Programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak galdera egin du (8-14/PES-00233) honako alderdi hauei buruz:

“2007ko abenduaren 4an, Europako Batzordeak 2007-2013 urteetarako Nafarroaren Landa Garapenerako Programa onetsi zuen; gastu publikoa, guztira, 502.345.319 eurokoa zen.

1.- Zenbat egiten du Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroaren Landa Garapenerako 2007tik 2013ra bitarteko Programa dela-eta, 2013an guztira betetako gastuak?

2.- 2013an egindako gastutik, zein izan da Nafarroako Gobernuak betetako gastua, eta zein

Europar Batasunak Feader programaren bitartez betetakoa?

3.- 2013an egindako gastuetatik, Nafarroako Gobernuak nahiz Europar Batasunak ardatz bakoitzera bideratutako zenbateko osoak xehakaituta:

a) Zenbat diru bideratu da 1. ardatzera (nekezarritza sektorearen lehiakortasuna)?

b) Zenbat diru bideratu da Feader programako 2. ardatzera (garapen iraungarri eta ingurumenarekiko begirunetsua)?

c) Zenbat diru bideratu da 3. ardatzera?

d) Zenbat diru bideratu da 4. ardatzera (Leader)?”

Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak galdera horretan eskatu den informazioa eman du erantsitako excel taulan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

2007-2013 BITARTEKO LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOA

Neurriak	2013.		
	Gastu publikoa (euroak)	FEADER (euroak)	Nafarroako Gobernua (euroak)
Nekazari gazteen kokapena	-200.468,36	-47.221,84	-153.246,52
Nekazarien eta nekazaritzako langileen erretiro aurreratua	-1.079,45	-539,73	-539,72
Ustiatagietarako aholkularitza zerbitzuak	0,00	0,00	0,00
Ustiatagietarako aholkularitza zerbitzuen ezarpena	0,00	0,00	0,00
Nekazaritzako ustiatagien modernizazioa	9.713.665,01	4.912.159,23	4.801.505,78
Basoen balio ekonomikoaren hobekuntza	-436,98	-218,49	-218,49
Nekazaritza eta basogintzako produktuen balio erantsia handitzea	4.523.571,86	2.280.878,95	2.242.692,91
Azpiegituren hobekuntza eta garapena, erronka berriak barne	1.008.227,22	597.991,96	410.235,26
1. ardatza, guztira	15.043.479,30	7.743.050,08	7.300.429,22
Mendialdeetako kalte-ordainak	3.150.886,94	1.732.988,57	1.417.898,37
Eskualde behartsuetako kalte-ordainak	675.759,39	371.667,87	304.091,52
Natura 2000 laguntzak	0,00	0,00	0,00
Nekazaritzako ingurumen laguntzak	1.595.908,95	877.746,91	718.162,04
Alorren lehenengo oihantzea	745.467,20	410.006,32	335.460,88
Baso potentziala lehengoratzeta eta prebentzio ekintzak	45.979,46	25.288,70	20.690,76
Basoko inbertsio ez emankorretarako laguntzak	1.168.699,39	642.784,65	525.914,74
2. ardatza, guztira	7.382.701,33	4.060.483,02	3.322.218,31
Nekazaritzaz kanpoko jardueretarako dibertsifikazioa	213.829,34	106.914,67	106.914,67
Nekazaritzako elikagaien arloko mikroenpresen sorrera eta garapena	231.083,38	115.541,69	115.541,69
Landa ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza	268.688,44	134.344,24	134.344,20
3. ardatza, guztira	713.601,16	356.800,60	356.800,56
Lehiakortasunean oinarritutako toki garapenerako estrategiak	162.305,11	89.267,82	73.037,29
Ingurumenean eta landa ingurumenean oinarritutako toki garapenerako estrategiak	412.438,49	226.841,17	185.597,32
Bizi kalitatean eta dibertsifikazioan oinarritutako toki garapenerako estrategiak	2.672.718,23	1.469.995,04	1.202.723,19
Toki ekintzako taldeen nazioz gaindiko eta lurralde arteko lankidetzak	222.048,93	122.126,91	99.922,02
Funtzionamendua, gaitasunen eskuraketa, sustapena	607.772,73	334.275,01	273.497,72
4. ardatza, guztira	4.077.283,49	2.242.505,95	1.834.777,54
Guztira	27.217.065,28	14.402.839,65	12.814.225,63

2007-2013 BITARTEKO LANDA GARAPENERAKO PROGRAMAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOA

Neurriak	2007-2013 bitartean metatua		
	Gastu publikoa (euroak)	FEADER (euroak)	Nafarroako Gobernua (euroak)
Nekazari gazteen kokapena	12.666.292,30	3.607.441,80	9.058.850,51
Nekazarien eta nekazaritzako langileen erretiro aurreratua	7.299.081,29	2.105.356,33	5.193.724,96
Ustiatagietarako aholkularitza zerbitzuak	0,00	0,00	0,00
Ustiatagietarako aholkularitza zerbitzuen ezarpena	0,00	0,00	0,00
Nekazaritzako ustiatagien modernizazioa	84.059.336,12	25.911.446,72	58.147.889,40
Basoen balio ekonomikoaren hobekuntza	843.921,50	219.376,59	624.544,91
Nekazaritza eta basogintzako produktuen balio erantsia handitzea	36.407.718,99	12.087.239,68	24.320.479,31
Azpiegituren hobekuntza eta garapena, erroka berriak barne	52.548.950,99	19.677.073,58	32.871.877,41
1. ardatza, guztira	193.825.301,19	63.607.934,70	130.217.366,50
Mendialdeetako kalte-ordainak	19.867.592,51	10.927.147,89	8.940.444,62
Eskualde behartsuetako kalte-ordainak	4.893.208,37	2.691.250,22	2.201.958,15
Natura 2000 laguntzak	744.016,42	409.208,72	334.807,70
Nekazaritzako ingurumen laguntzak	18.509.600,52	10.180.262,81	8.329.337,71
Alorren lehenengo oihantzea	5.588.560,80	3.073.699,92	2.514.860,88
Baso potentziala lehengoratzeko eta prebentzio ekintzak	2.472.263,56	1.359.744,87	1.112.518,69
Basoko inbertsio ez emankorretarako laguntzak	13.561.936,60	7.459.065,21	6.102.871,39
2. ardatza, guztira	65.637.178,77	36.100.379,64	29.536.799,13
Nekazaritzaz kanpoko jardueretarako dibertsifikazioa	1.764.820,52	882.410,26	882.410,26
Nekazaritzako elikagaien arloko mikroenpresen sorrera eta garapena	1.168.910,06	584.455,03	584.455,03
Landa ondarearen kontserbazioa eta hobekuntza	4.995.055,67	2.497.527,67	2.497.528,00
3. ardatza, guztira	7.928.786,25	3.964.392,96	3.964.393,29
Lehiakortasunean oinarritutako toki garapenerako estrategiak	1.036.332,51	569.982,90	466.349,61
Ingurumenean eta landa ingurunean oinarritutako toki garapenerako estrategiak	1.181.800,64	649.990,34	531.810,30
Bizi kalitatean eta dibertsifikazioan oinarritutako toki garapenerako estrategiak	7.058.932,15	3.882.412,63	3.176.519,52
Toki ekintzako taldeen nazioz gaindiko eta lurralde arteko lankidetzak	396.375,57	218.006,57	178.369,00
Funtzionamendua, gaitasunen eskuraketa, sustapena	2.167.266,02	1.191.996,29	975.269,73
4. ardatza, guztira	11.840.706,89	6.512.388,73	5.328.318,16
Guztira	279.231.973,10	110.185.096,03	169.046.877,08

Galdera, Nafarroan dauden GR eta GRT Mendibideen Sareko 800 kilometroak behin betiko deshomologatu eta deskatalogatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan dauden GR eta GRT Mendibideen Sareko 800 kilometroak behin betiko deshomologatu eta deskatalogatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroan dauden GR eta GRT Mendibideen Sareko 800 kilometroak behin betiko deshomologatu eta deskatalogatzeari buruz (8-14/PES-00237). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1. Legegintzaldi honetan 80.000 euroko laguntza eman da.

AURRETIK ORDAINDUTAKO DIRU KOPURUAK.

FEDERAZIOA	NKGI-K MENDIBIDEAK LEHENGORATZEKO, MARKATZEKO ETA MANTENTZEKO ORDAINDUTAKO DIRU KOPURUAK			
	2011	2010	2009	2008
MEKNF (Mendi Federazioa)	78.606,87*	80.000,00	140.492,00	119.063,00

*OHARRA: 1.393,13 euroren ordainketa 2012ra arte geroratu zen eta jada ordainduta daude.

2. Gainerako galderei dagokienez, adierazi behar da egunotan MEKNFrentzako laguntza berezi bat izapidatzen ari dela gure Komunitateko kirol zidorrak mantentzeko lanetarako ekarpena egiten saiatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren datu ekonomikoak eskatzeko (PES-0221). Galdera hori 2014ko abenduaren 18ko 3492 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 18an Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratu da, ordezkarietasun

handiena duten eragile ekonomiko eta sozialen eta Foru Komunitateko Administrazioaren topaketa, parte-hartze eta negoziazio instituzionalerako hiru aldeko organo gisa.

Ongi dakizunez, Nafarroako Parlamentuan azaroaren 6an onetsitako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari buruzko Legeak aurrekontu-izendape-na ezartzen du diru-laguntza izendun gisa, eta 2015erako 900.000 eurokoa izanen da. Aurrekontu horren xedea da enpresa eta sindikatu erakunde-ek Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan eta beste organo instituzional batzuetan egiten duten jarduera instituzionala ordaintzea.

Ildo horretatik, Kontseiluaren finantzaketa gauzatzeko, Parlamentura ekarriko dira haren onespenerako behar diren aurrekontu-aldaketak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, hartutako kalte zerebralari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hartutako kalte zerebralari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hartutako kalte zere-

bralari buruz (8-14PES-00239). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Zerotik hamasei urtera bitarteko zenbat haur dago gaur egun, hartutako kalte zerebrala daukatela diagnostikaturik?

Ez dago hartutako kalte zerebrala daukaten haurren berriazko erregistrorik. Emanen ditudan datuak zenbatespen nahiko errealistak dira, zenbait datu-base gurutzatuz eginak.

Hartutako kalte zerebraltzat jotzen badira, haurrengan, garezur eta entzefaloko traumatismoak, jaioberrien iktusak eta infekzio nahiz tumoreen ondorioak (adituen arabera kanpora utzi behar da jaiotze aurreko eta inguruko garun-paralisia), irizpide horiek betetzen dituzten haurrak 15-20 dira (neuropediatriako kontsultetan kontrolatutakoen % 1,5-3).

Zer baliabide dago gaur egun horiek artatzeko, fase kritikoa deiturikoa gainditu ostean?

Nafarroako Ospitalegunean baliabide berak erabiltzen ditugu arazo neurologikoak edota errehabilitazio beharrak dituzten haur guztientzat, duten patologia dutela. Orain lau neuropediatra ditugu, arazo neurologikoak dituzten Nafarroa osoko haurrak artatzen dituztenak, eta bi mediku errehabilitatzaile, % 100ean haurren errehabilitazioan ari direnak, Iruñean. Halaber, baditugu lanaldi osoko hiru fisioterapeuta eta lanaldi erdiko beste bat lan horretan.

Azpiegiturei dagokienez, gimnasio bat dago eta tresna hauekin hornituta dago: tratamendu mahaia, paraleloak, eskailerak, arrapalak, Bobath-en baloiak eta haurrentzako errehabilitazio materialak.

Nafarroako Ospitaleguneko haur-errehabilitazioa 3 urtera arteko haurrentzat da; funtsean estimulazioa edota fisioterapia, kalte zerebrala duten haur guztientzat. Ez da bereizten zergatik behar duten errehabilitazioa, eta, hortaz, ez dago berriaz bildutako daturik zehaztu ahal izateko zenbat haur artatu diren hartutako gaitzengatik eta zenbat sortzetiko gaitzengatik.

3 urtetik 21 urtera bitartekoak, Hezkuntza eta Osasun departamentuen arteko akordio bat dela

bide, tratamendua hartzen jarraitu beharra badute, Arreta Goiztiarreko Zentroan artatzen dituzte Hezkuntza Departamentuak kontratatutako fisioterapeutek, eta ikastetxeetan ere bai, gizareratzea sustatzeko eta eskolatzearen etenak ekiditeko. Profesional horiek ezarrita dagoen lan egutegia betetzen dute. Beraz, udan eta oporraldietan ez dituzte haurrak artatzen. O-NOZeko haur-errehabilitazioko medikuek agintzen dituzte ferulak eta ortesiak.

Portaeraren konplikazioak dituzten gaixoak buru osasuneko zentroetan artatzen dituzte, gehienak Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroan.

Bizkarrezur-muineko kaltea duten gaixo bakanak Toledoko Paraplegikoen Zentrora eramaten dira.

Bestalde, Osasun Departamentuak diru-laguntza ematen du garun-paralisia duten haurren familientzat, Petö metodoa erabiltzeko. 2014an 119.000 euroko diru-laguntza eman die.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakitekoa zer jarduketa zehatz egin behar diren, Gobernuaren ustez, zentro itundu bakoitzean O-NOZen itun-estrategia berriarekiko koherentziaz.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer jarduketa zehatz egin behar diren, Gobernuaren ustez, zentro itundu bakoitzean O-NOZen itun-estrategia berriarekiko koherentziaz. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 19ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek idatziz erantzuteko galdera egin dute, jakitekoa zer jarduketa zehatz egin behar dituen Osasun Departamentuak 2015eko urtarrilaren 1etik aitzina, O-NOZen itun-estrategia berriarekiko koherentziaz (8-14/PES-00255). Galdera horri dagokienez, informazio hau eman du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

O-NOZen itunen plana 2012. urtean egin zen. Geroztik etenik gabeko lana egiten ari da estrategiak eta jarduketak moldatzeko, itunei dagokienez, eta planeko neurriak ezartzen joan da, orduan egin zen egutegiaren arabera. Beraz, hemen bildu den informazioa 2015ean hasiko edo burutuko diren neurri garrantzitsuenei buruzkoa da, nahiz eta haietako batzuk urtarrilaren 1a baino lehenago hasi diren.

O-NOZen itunen planak printzipio batzuk ezarri zituen, zentro pribatuekiko itunak egiteko eta berritzeko bete behar zirenak:

– Ituntzeko irizpideak.

Eraginkortasuna, eragimena eta Nafarroako ekonomia eta gizarte garapena ezarri ziren itunak egiteko oinarritzko irizpidetzat.

– Planifikazioa

Itunak egiterakoan kontuan hartu behar dira Departamentuaren eta O-NOZen osasun arloko planifikazioa, helburuak, baliabide berekiekin eta itunduekin beharrak asetzeko ahalmena, eta insta-

lazio berekiak handitzeko edo zabaltzeko aurreikuspenak.

– Itunen eraginkortasunaren hobekuntza

Itunen eraginkortasuna hobetze aldera, jardura planifikatzeaz gain, beharrezkoa da:

– Zerbitzuen kudeaketaren kontrola eta kalitatearen bermea hobetzea.

– Zentroak sare publikoarekin koordinatzea.

– Prezioak finkatzeko politika ezartzea.

– Esparru juridikoa

Ezarritako itunak Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeari egokitu behar zaizkio, eta lehia sustatu behar da Nafarroako zentro batek baino gehiagok egin ditzaketen jardueren edo jardueramultzoen lizitazioan.

Printzipio horien gainean, jarduketa edo neurri azpimarragarriak zenbait kasutan zentro itunduen arabera aurkeztzen dira eta beste batzuetan jarduera itunduen arabera.

San Juan de Dios Ospitalea

San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna luzatu egin da 2015. urterako. Hauek dira urte horretarako funtsezko neurriak:

– Egonaldi ertaineko ospitaleratzeen eta zainketa aringarrien jarraipena hobetzea.

– Gaixo ez onkologikoentzako zainketa aringarrien plana pixkanaka ezartzea.

– Zentroarekin batera lan egitea operazio-gelen aprobetxamendu eraginkorra lortzeko.

– 2016an egin beharreko itun berriaren oinarriak ezartzea, itunaren prezioen berrikuspena barne.

Nafarroako Unibertsitatea Klinika

Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekin sinatutako ituna iragan abenduaren 31n amaitu zen, eta Gobernuaren 2014ko abenduaren 29ko Erabakiaren bitartez O-NOZi baimena eman zaio zentro horrekin esparru-itun berria egin dezan osasun laguntza emateko:

– Transplanteak, eta transplantatutako gaixoak artatzeko jarraipena.

– Aurretik deribatu diren eta beren patologiagatik barnean artatu ezin diren gaixoen jarraipena.

– O-NOZek falta dituen prozedura diagnostiko eta terapeutikoak.

– Patologia konplexuak.

– Baliabide berekien faltagatik aurre egin ezin zaien unean uneko egoerak.

2015eko lehenengo asteetarako jarduketa nagusia esparru-itun berria formalizatzea da. Jardueraren kontrolerako eta jarraipenerako bide berriak ezartzea, informazio klinikoa partekatzeko bideak hobetzea eta prezioak berrikustea dira ardatz nagusiak.

Arcángel San Miguel Klinika

O-NOZek geriatriako gaixoak artatzeko ituna zeukan San Miguel Klinikarekin. Itun hori ez da berri eta 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera O-NOZen baliabideekin egiten da jarduera hori oso ororik.

Josefina Arregui Klinika. ARFE-Felipe Lecea Fundazioa

Egonaldi laburreko ospitaleratze erregimeneko osasun laguntza emateko zentro horrekin sinatutako ituna 2014ko abenduaren 31n amaitu zen. Gobernuaren 2014ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez O-NOZi baimena eman zaio zentroarekin esparru-itun berria egiteko. Dagoeneko espediente hasi da.

Hauek dira 2015erako bi jarduketa nagusiak:

– Itunaren prezioa ematen den laguntzaren ondoriozko farmazia-gastuari egokitzea. Egonaldiko prezioa 4 euro igo da, zentroaren eskaera justifikatuari erantzunez.

– O-NOZeko historia klinikoak zentroko profesionalen eskura jartzea.

Hartutako garuneko kaltea duten gaixoen ebaluazio eta errehabilitazio neuropsikologikoak

O-NOZek kontratua eduki du Argibide Fundazioarekin, Nafarroako Ospitaleguneko (NOG) Errehabilitazio eta Neurologia zerbitzuetan artatutako gaixoen ebaluazio, tratamendu eta errehabilitazio neuropsikologikoetarako laguntza xede izan duena, honako modalitate hauen arabera:

1. Hartutako garuneko kaltea duten gaixoen ebaluaziorako eta errehabilitaziorako laguntza, NOG-Dko (Ubarmin Klinika) Errehabilitazio Zerbitzuan. Errehabilitazio Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

2. NOG-Dn (Ubarmin Klinika) ospitaleratutako gaixoei interkontsultak egitea, zentro horretako medikuek eskatuta. Errehabilitazio Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

3. Ebaluazio neuropsikologikoa eta esku-hartze terapeutikoa egitea NOG-An eta Bn eta kanpokontsultetarako Vianako Printzea zentroan, Neurologia Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

Nafarroako Ospitaleguneko Errehabilitazio eta Neurologia zerbitzuek adierazi dute beharrak badi-rauela, kostuen azterketa egin da eta eraginkorragotzat jo da kanpoko zentro batekin ituna egitea, eta merkatuan bat baino gehiago dira horrelako zerbitzuak eman ditzaketanak. Hori dela eta, O-NOZ laguntza teknikoaren kontratua lizitatzeko prozesuan ari da. Lizitazioa laster argitaratuko da Nafarroako Kontratazio Atarian.

Lizitazioaz gain, kontratu honek dakarren aldaketa nagusia da lehen ez zirela zehazten kontratatzen ziren zerbitzuak eta ez zirela ezartzen zerbitzuaren funtzionamendu onerako zenbait baldintza, orain eskatzen direnak, hala nola prestakuntzagatiko absentzien estaldura, gaixotasunagatiko baxen estaldura edo oporraldien estaldura partziala. Halaber, orain esleipen-hartzaileari eskatzen zaio material suntsikorra erosteko eta ebaluazio testa egiteko. Horregatik, lizitazioko prezioa urtean 263.000 eurotik 273.000 eurora igo da.

Itxarote-zerrenden kudeaketa dela-eta probak, kontsultak eta ebakuntza kirurgikoak deribatzen diren esparru-ituna

Esparru-itun hori 2014an egin zen, sinatutako beste itun batzuetan itxarote-zerrendetatik egiten ziren deribazioak araudi indardunari egokitzeke.

Ituna lehenengo hornidura ekonomiko berarekin (2,4 M €) luzatu da 2015. urterako, eta hauxe da azpimarragarriena: urte osorako planifikazioa 2014aren amaieran egin da, baina lau hilean behin planifikazio horren berrikuspena egiten da, ezusteko egoerei aurre egin ahal izateko.

Oinarrizko Osasun Laguntzako ekografiak

Oinarrizko Osasun Laguntzako ekografiak San Juan de Dios Ospitalera deribatzen ziren aurreko itunarekin. Jarduera hori Nafarroako hainbat zentrotan egin dezaketenez, lizitazio publikoaren espediente hasi da, eta laster argitaratuko da Nafarroako Kontratazio Atarian.

Lizitazio horrek hornitzaile asko edukitzeko aukera ematen du, eta ziur aski azken prezioa hobeki egokituko zaie merkatuko egungo prezioei.

Erresonantzia magnetikoak

Gaur egun, Gobernuaren 2014ko abenduaren 23ko Erabakiaren ondoren, O-NOZ laguntza kontratu berri bat lizitzatzeko prozesuan ari da, Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietako erresonantzia magnetikoak egiteko.

Zerbitzua ongi kudea dadin, O-NOZeko eta kontratatutako enpresetako mediku erradiologoek osatutako lantaldea sortuko da, eta kontratuaren jarraipen egokia egiteko nahitaezko bileren egutegia edukiko du.

Bestalde, kalitate adierazleak hobetu eginen dira, eta enpresa esleipendunen eta zentroetako harrera atalen arteko harremanetarako bide hobea ezarriko da, historia klinikoa partekatu beharra barne.

Arnas terapiak

Oxigenoterapia eta beste arnas terapia batzuk etxean emateko kontratu berria esleitzeko prozesuan (kontratazio mahaia) ari da O-NOZ.

Azken urteetan eman den zerbitzua azterturik, funtsezko helburutzat ezarri da kontratu berriak tratamenduarekiko atxikimendua susta dezala. Hala, bada, Nafarroako Ospitaleguneko Pneumologia Zerbitzuaren laguntzaz, honako neurri hauek sartu dira prestazioaren xedean:

- Medikuntza eta erizaintzako kontsultak gaixoen kontrolerako.
- Zainketa plan pertsonala.
- Arnas fisioterapia.
- Gaixoen eta zaintzaileen prestakuntza.

Bestalde, espero da norgehiagokak berekin ekarriko duela guztizko gastua murriztea kontusaillean.

Osasun garraioa

Zerbitzu horretan funtsezko bi jarduketa ditugu 2015ean:

- Nafarroako osasun garraioaren plan berria egitea.

Otsailean aurkeztuko da jendaurrean, eta zerbitzua emateko eredia zehaztuko du, larrialdietako nahiz programatutako osasun garraiorako.

- Tuterako eta Zangozako barrutietako lizitazioaren deialdia.

Enpresa esleipendunek zerbitzua egungo baldintzetan ematen jarraitzeko arazoak dituztela adierazi dutenez, bi barruti horietan anbulantzien zerbitzua bermatze aldera, kontratazio espediente-

ari ekin zaio, eta urteko lehen seihilekorako dago aurreikusita esleipena.

Burlatako Osasun Mentaleko Zentroko (I-B sektorea), Eguneko I. Ospitaleko eta Zuria Eguneko Ospitaleko artapenaren kudeaketa

Artapena kudeatzeko kontratua 2015. urterako luzatu da honako hauekin:

- Argibide Fundazioa. Burlatako Osasun Mentaleko Zentroko artapena kudeatzeko eta Eguneko I. Ospitaleko artapena kudeatzeko kontratuaren esleipena hartu du 2015. urterako.

- ACOAD Laguntza Zerbitzuetako Elkartea: IFZ: G31129497. Zuria Eguneko Ospitaleko artapena kudeatzeko esleipena hartu du 2015erako.

Bi itun horietan honako jarduketa hauek azpimarratu behar dira:

- Kontratua adjudikatzeko irizpideak Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 11. artikuluari egokitzea, artikulatu horren azken aldaketa kontuan hartuz.

- Osasun Mentala Kudeatzeko Zerbitzuak fakturazioa eta hileko guardiak kontrolatzea.

- O-NOZeko informazio sistemak integratuz osoa 2014tik aurrera.

- Zentroetako jardueraren jarraipena, Osasun Mentaleko Zuzendaritzako aginte-taldean integratua.

- Kudeaketa itunak, Nafarroako Osasun Mentaleko Sareko gainerako zentroekin integratuak.

- Itun horien xede den artapena, 2015ean, hautemandako kalitatea ebaluatzeko prozesuetan sartu du Osasun Mentaleko Zuzendaritzak, bi modalitateak barne: zerbitzu arteko ebaluazioa eta erabiltzaileen ebaluazioa.

Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekiko (Aita Menni) ituna

Ospitaleko egonaldi ertaineko osasun laguntza emateko eta laguntzadun egoitza psikiatrikoko, egoitza psikogeriatrikoko eta tutoretzapeko etxebizitzetako osasun laguntza emateko bere zentroetan, hots, Iruñeko "Aita Menni" Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko "Benito Menni" Ospitale Zentroan.

Itun hori 2015erako luzatu da. Hauek dira neurri nagusiak:

- 2015ean hileroko integratuko dira jarduerari buruzko datuak Osasun Mentaleko Zuzendaritzako aginte-taldean.

– Itunaren jarraipena zenbait mailatan egiteko bileren egutegia ezarri da:

- Itunen Jarraipenerako Batzordea: urtean bi bilera.
- Laguntzaren koordinazioa Egonaldi Ertainen Unitatearen eta Ospitaleratze Zerbitzuko buruaren artean: urtean 6 bilera, gutxienez.
- Buru Nahasmendu Larrien Batzordea, Gizarte Politiketako Departamentuarekin koordinatzeko, itun soziosanitarioen jarraipenerako: hilero bilduko da.

– Itun honen xede den artapena hautemandako kalitatearen zerbitzu arteko ebaluazioan sartuko du Osasun Mentaleko Zuzendaritzak.

– Tutoretzapeko etxebizitzetan 4 leku gehitzea aurreikusten da 2015erako.

Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekiko lankidetzaren hitzarmena, opiazeoen mendekotasuna duten pertsonen ordezkari bidezko tratamendua emateko, farmazia-bulegoen bitartez

O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 2ko 1378/2014 Ebazpenaren bidez onetsi da 2015erako lankidetzaren hitzarmena sinatzea Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 31ra arte luzatzeko aukera dago.

Hona hemen 2015eko mugari nagusiak:

– Lankidetzaren hitzarmenaren prezioa berrikus-tea hura 2014an izapidetu aurretik.

– Osasun Mentaleko Sareko zentroekiko koordinaziorako dokumentuak eta prozedurak berrikus-tea.

– Metadona pilulak erabiltzeko aukera ezar-tzea.

– Osasun Mentala Kudeatzeko Zerbitzuak hile-ko fakturazioa kontrolatzea.

Komunitate terapeutikoak

2015. urterako, eta luzatzeko aukerarik gabe, hainbat motatako adikzioetarako laguntzari buruz-ko esparru-akordioa honako hauekin sinatzea one-tsi da:

- Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa
- Asociación Navarra para la Investigación, Pre-vencción y Rehabilitación de las Toxicomanías (ANTOX).

- Ibarre Multzoa, S.A.L.

Hauek dira 2015eko jarduketaren nagusiak:

– Osasun Mentaleko Sareko zentroetatik, Harrerarako eta Eriaren Arretarako Unitatearen bitartez, komunitate terapeutikoetara bideratzeko prozedura garatzea.

– Pertsonako eta eguneko kostua aztertzea programetako bakoitzean.

– Hileko fakturazioaren kontrola, Osasun Men-taleko Kudeaketa Zerbitzuaren eta Harrerarako eta Eriaren Arretarako Unitatearen artean koordinatua.

– Gaixoen historia kliniko elektronikoaren pro-grametako alta-txostenak.

– Itun honen xede den artapena hautemandako kalitatearen zerbitzu arteko ebaluazioan sartu-ko du Osasun Mentaleko Zuzendaritzak.

– Koordinazio eta planifikazio bilerak egitea Gizarte Politiketako Departamentuarekin batera, eredu soziosanitario eta sozial berria planifika-tzeko.

Planifikazioan: eredu aldaketa aztertzen ari da, honako hauek kontuan hartuta:

- Beharren profil berriak:

~ Osasun beharrak: gaixo dualak

~ Behar soziosanitarioak: egungo ereduaren antzekoa

~ Gizarte beharrak: baliabide berriak

- Gaixoen profil berriak:

~ Alkoholarekin eta polikontsumoarekin zerikusia duten eskarien gehikuntza eta opiazeoekin zerikusia duten eskarien beherakada.

~ Lankidetzaren hitzarmenaren formulatik espezifikotasun teknikoagatik laguntzarako esparru-akordiorako eboluzioa (2014an egina), eta prozedura irekiaren bidezko laguntzarako esparru-akordiorako ziur aski gertatuko den eboluzioa.

• 2015a amaitu baino lehen esparru-akordio berria izapidetu beharko da 2016rako.

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Hitzarmen hori 2015erako luzatuta dago, eta urte horretarako erronka nagusia da 2016-2019 aldirako hitzarmen berria izapidetzea, Gizarte Poli-tiketako Departamentuarekin koordinaturik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua bete-tzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Europar Batasuneko Erregioen Batzordean dituen helburu eta ekimenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Europar Batasuneko Erregioen Batzordean dituen helburu eta ekimenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 19ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Europar Batasuneko Erregioen Batzordean dituen helburu eta ekimenei buruz (8-14/PES-00253). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, ele-dun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Europar Batasunaren politikak eta legeria egitean toki- eta eskualde-erakundeak ordezkatzen dituen batzar politikoa da Erregioen Batzordea.

Erregioen Batzordeko kideak 353 dira, eta Kontseiluak izendatzen ditu bost urterako, Europar Batasuneko 28 herrialdeen proposamenez. Herrialde bakoitzak bere kideak hautatzen ditu, bere arauetara jarraituz, hauteskunde-mandatu baten titularrak diren edo batzar hautatu baten aurrean erantzukizun politikoa duten eskualde- eta toki-erakundeak ordezkatzen artetik. Espainiako 17 batzordekide titular daude eta beste horrenbeste ordezko, autonomia erkidegoak ordezkatuz, eta 4 kide titular eta beste horrenbeste ordezko, toki-erakundeak ordezkatuz. Erregioen Batzordeko kideen agintaldia bost urtekoa da. Kontseiluak modu ofizialean izendatzen dituen egunean hasten da, eta, beste arrazoi batzuen artean, Erregioen Batzordeko kide izendatzea ekarri zuen hauteskunde-mandatuarekin batera amaitzen da. Izendapenak, beraz, lotura banaezina du izendatuak daukan karguarekin, hura autonomia erkidegoaren ordezkaritza izendatzeko zio izan den karguarekin, hain zuzen.

Erregioen Batzordeko kideak 2015-2020 aldirako berritzeko prozesuaren ondorioz abian jarri da Lisboako Tratatuaren 305. artikuluan azaldutako izendapen prozedura, eta, horregatik, Nafarroako Gobernuak, abenduaren 10eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria Batzordeko kide titular izendatu du aldi horretarako.

Erregioen Batzordea EBko organo aholku-emailea den aldetik, hango gure esku-hartzeak helburu nagusia izanen du eskualdeetan eta bereziki Nafarroan eragina izanen duen Europar Batasuneko legeria sortzeko prozesuan parte hartzea, gure ikuspuntua azaltzea, gure esperientzia eskaintzea eta, azken batean, Foru Komunitatearen interesak defendatzea, uste osoa baitugu gobernu-maila guztiak –Europakoa, nazionala, eskualdekoa eta tokikoa– lankidetzan aritzea ezinbestekoa dela Europar Batasuna osatzen dugun lurralde guztion garapen orekatua lortzeko.

Bigarren galdera dela-eta, eskualdeek Europar Batasunaren testuinguruan libreki parte hartzea aldezteko ekimenak aurkezteari dagokionez, azpimarratu behar da Europar Batasuna sortu zenetik eskualdeen erabaki-egituren aitortzen instituzionala gertatu dela geldiro baina etenik gabe, bereziki Ministroen Kontseilua ordezkaritza autonomikoek parte hartzeko ireki zenean eta berariazko organo bat sortu zenean: Erregioen Batzordea. Europar Batasuna osatzen duten estatu subiranoek, ordea, subiranotasun horren zati bat lagatzen dute guztien proiekturako, eta autonomia erkidegoen kasuan hain zuzen ere estatu subiranoaren izaera da, Nazioarteko Zuzenbidearen subjektu gisa, oinarritzat hartzen dena Europar Batasunaren eta botere politiko autonomikoaren arteko harremanak eraikitzeko. Espainiako autonomia erkidegoak estatu subirano baten antolaera dira, eta, hortaz, Erregioen Batzordea ez da politika autonomikoak EBko ingurunean subiranotasunez aldezteko ez forotzat ez bidetzat jotzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilean

Bigarren lehendakariordea: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakitekoa ea turismo-plan berariazkorik egin ote den, Tuterako katedraleko klaustroa zaharberritzeko lanen emaitza bertatik bertara ezagutu ahal izateko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea turismo-plan berariazkorik egin ote den, Tuterako katedraleko klaustroa zaharberritzeko lanen emaitza bertatik bertara ezagutu ahal izateko. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako katedraleko klaustroa ikusteko bisitei buruz (PES-00227). Hau erantzun du Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultu-

rako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Tuterako Santa Maria katedralak eta alboan dagoen Dekano Museoak jada badute bisitak egiteko programazioa (bisita gidatuak ere bai), eta klaustroa barnean hartzen dute. Programa hori katedralaren webgunean eta Nafarroako Gobernuaren turismoko webgunean ikus daiteke.

Obrak egin bitartean ez da programazioa eten, salbu eta segurtasun edo osasungarritasun arrazoiengatik ezinbestekoa izan denean.

Obrak amaitu ondoren bisitarietzako informazioa gehitu nahi da obrei buruzko material osagarria eskainiz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 29ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruz (PES-260/14). Galdera horri dagokionez, hau adierazi du Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak:

1. Lan egiten ari da 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea betetze aldera, foru lege horretan eta gainerako arau aplikagarrietan xedatutakoarekin bat etorriz; haren 10. artikuluan aurreikusitako errolda egiten ari da, eta lan horretan parte hartzen ari da 5. artikuluan aurreikusitako Koordinazio Batzorde Teknikoa.

2. 1936ko uztailaren 18tik 1975eko azaroaren 20ra bitartean Foru Diputazioak edo Nafarroako Gobernuak emandako ohore edo sariak eduki dituzten pertsona edo erakundeei dagokienez, eranskineko zerrendan ageri direnak daude jasorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria, Justizia eta Barneko kontseilariak: F. Javier Morrás Iturmendi

ERANSKINA: 1936ko uztailaren 18tik 1975eko azaroaren 20ra bitartean Foru Diputazioak edo Nafarroako Gobernuak emandako ohore edo sariak eduki dituzten pertsona edo erakundeak

1. 1974ko abenduaren 27an Nafarroaren adopziozko seme izendatzen da Francisco Franco Bahamonde jauna.

1975ko apirilaren 23an Francisco Franco Bahamonde jaunari dokumentu bat ematen zaio, egiaztatzen duena Nafarroaren adopziozko seme izendaturik izan dela.

2. Nafarroaren seme kutunak edo adopziozkoak

a) Seme kutunak:

- José Solchaga Zala jenerala
- José Iruetagoiena Solchaga jenerala
- Tomás Domínguez Arévalo jauna
- Manuel Arce Ochotorena jauna
- Serapio Huici Lazcano jaunak
- Arcadio María Larraona Saralegui jauna
- Luis Arellano Dihix jauna
- Félix Huarte Goñi jauna

b) Adopziozko semeak

- Francisco García Escámez Generala
- Rafael García Valiño jenerala
- Ricardo Rada Peral jenerala
- Luis Orgaz y Yoldi teniente jenerala
- Federico García Sanchís jauna
- Marcelino Olaechea Loizaga jauna

3. Nafarroako Domina

Ez dago jasota Nafarroako Domina eman zenik aipaturiko daten artean.

Galdera, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eva María Gorri Gil andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Gaixoen Erregistro Orokorreko eta itxaronzerrendetako baje kopuruari buruz (8-14/PES-00202). Hona hemen Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Espezialistaren kontsultarako hitzordua justifikaziorik gabe huts egiten duten pertsona guztiei baja ematen zaie itxarote-zerrendan. Baje kopurua, beraz, PES-00201 galderaren erantzunean emandako datuetan dago:

Espezialistaren lehenengo kontsultarako hitzordu huts eginak 2012an: 22.111

Espezialistaren lehenengo kontsultarako hitzordu huts eginak 2013an: 22.626

Espezialistaren lehenengo kontsultarako hitzordu huts eginak 2014an (urriaren 31ra arte): 19.639

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Nafarroako zergadunei PFEZaren 70,3 milioi euro itzultzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako zergadunei PFEZaren 70,3 milioi euro itzultzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 19ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak iragarritako PFEZaren itzulketari buruz (8-14/PES-0254). Galdera hori 2014ko abenduaren 11ko 3410 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Argitu behar da, lehenik, Nafarroako Gobernuak iragarri zuenean PFEZaren aitortzea zela eta Ogasunak 70,3 milioi euro itzuliko zituela, zergadunei bidali zitzaizkien eta itzultzeko emaitza zuten PFEZaren autolikidazio-proposamenen arabera prestatu zen bidalketaren zenbatekoaz ari zela soil-soilik. Zenbateko hori osorik itzuli zen errentaren kanpaina hasi aurretik.

Itzulketak horren ondoren hilero bidalketak egin dira, guztira 18 bidalketa gehiago, PFEZaren kan-

painak aurrera egin ahala sortzen ziren emaitzak itzuliz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 29ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du laguntza espezializatuko zerbitzu ezberdinetako egutegiei buruz: "Egutegiak zergatik ixten dira? Zenbat denbora egoten dira itxita? 'Erreserba'ra pasatzen diren eskaerak nola zenbatzen dira itxarote-zerrenden barruan?" (8-14-PES-00257). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Laguntza espezializatuko zerbitzu ezberdinetako egutegiak zergatik ixten dira?

Kontsulten agenden programazioaz ari garenean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan bi kontzeptu desberdin erabiltzen dira: agenda irekiaren muga, eta hitzordua emateko tarte libreak egotea.

Agenda irekiaren mugak esan nahi du zein egunetara arte dagoen programatuta agenda hori aplikazio informatikoan. Alegia, zein egunetara

arte programa daitezkeen hitzorduak Zerbitzuko medikuekin.

Kontsulten agendak programatzen direnean kontuan hartu behar dira kasuan kasuko zerbitzuko gainerako artapen lanen programazioa eta planifikazioa, hala nola arreta jarraitua, ebakuntzaz gela, solairuan ospitateratutako erien artapena, eguneko ospitaleko lanak, proba osagarriak edota langileen oporraldiak. Inguruabar horiek zaildu egiten dute agendak epe oso luzerako programatzea.

Horren guztiaren mende dago zerbitzu bakoitzean agenda bakoitza zenbat denbora lehenago programatu behar den, eta zerbitzuko burua arduratzen da horretaz, zentroko zuzendaritza medikoak gainbegiratuta. Oro har, agendak bi edo hiru hilabete lehenago programatu ohi dira, baina badira, hainbat arrazoi tarteko, 6 hilabete lehenago programatzen diren agendak edo hilabete lehenago programatzen direnak.

Eri bat osasun zentrotik deribatzen den unean hitzordurako tarte libreak egoteari dagokionez, ez da egutegia ixten, baina halako batean indarreko programazio aldirako libre dauden tarte guztiak betetzen dira. Gerta daiteke, eta oso ohikoa da, deribazioaren unean hitzordu arruntetarako tartetik ez egotea baina lehentasunezko hitzorduetarako bai, eta programazio aldia berriro irekitzen den arte tarte gehiago ez sortzea.

Zenbat denbora egoten dira itxita?

Berriro diogu, agendak ez dira ixten, bete egiten dira. Aurreko puntuan azaldu den bezala, berriz programatzen da, zerbitzu bakoitzeko agen-

dak zenbat denbora lehenago programatu behar diren kontuan hartuta.

“Erreserba”ra pasatzen diren eskaerak nola zenbatzen dira itxarote-zerrenden barruan?

Oinarrizko osasun laguntzako medikuak pertsona bat espezialitateko lehen kontsultara bidaltzea izapidetzen duen unetik pertsona hori itxarote-zerrendan egonen da. “Erreserban”

egoteak esan nahi du ez zaiola kontsultarako egun eta ordurik esleitu. Beraz, “erreserban” ageri diren pertsona guztiak O-NOZeko itxarote-zerrendako erregistroetan ageri dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 29ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta

Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruz (8-14/PES- 00259). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

2014an ez da inolako ordezkari ofizialik izan Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalean, ezta antolatzailearen gonbidapen ofizialik ere. Enpresa pribatu bat da antolatzailea.

2013an NKGIko zuzendari kudeatzailea joan zen finalera, Gasteizera; eta 2012an ere bera joan zen finalera, orduan Bilbon egin zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 22an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

